Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

RENOVACIÓN DE LA ESTACIÓN DE AFOROS DE AITZU (ZUMÁRRAGA)

AITZUKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA (ZUMARRAGA)



AITZUKO AFORALEKUAREN BERRIKUNTZA (ZUMARRAGA)

- 1. dokumentua: MEMORIA
- 2. dokumentua: PLANOAK
- 3. dokumentua: PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA
- 4. dokumentua: AURREKONTUA

1. DOKUMENTUA

MEMORIA

MEMORIA

AURKIBIDEA:

1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA 1

2. OBREN DESKRIBAPENA 2

3. SARBIDEA 4

4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA 4

5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA 4

6. AURREKONTUA 5

1. AURREKARIAK, PROIEKTUAREN OBJEKTUA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako ur emaria eta kalitatea neurtzeko sarea hobetzeko eta modernizatzeko Plan Gidariaren aurreproiektu bat egin da. Bertan, Gipuzkoako aforalekuen azterketa bat egin da, azpiegitura propioak hobetu beharra zehaztu ahal izateko.

Aitzuko aforalekua, Zumarragan, 1991z geroztik dago abian. Jasotzen duen arro azalera 56,13 km^2 da, eta batez besteko ekarpena, berriz, 38,40 hm^3/urtean.

Etxolak uraren kalitatea neurtzeko dituen ekipamenduak, gaur egun, aforalekuko hobietarako sarbideen gainean kokatuta daude, eta horrek eragotzi egiten du ekipamenduetara segurtasunez iristea; beraz, etxola handitu egingo da atzeko atariperantz, ekipamendu horiek birkokatu ahal izateko. Aldatu egingo dira ura ponpan sartzeko kanalizazioa, eta hustubidea, eta edateko urez hornituko da aforalekua.

Orobat aldatuko dira baranda hondatuak, ibaiaren eskuinaldeko hormakoak, eta baranda berriak jarriko dira ibaiaren ezkerraldean; gainera, sarbide seguru bat sortuko da ibaiaren alde horretako tornuaren profilerako.

Proiektu honen objektua da beharrezkoak diren obrak definitzea, alde batetik, ibaiaren eskuinaldeko etxola eta aforalekuaren urbanizazioa berritzeko, eta bestetik, ezkerraldeko tornuaren profilaren ingurua egokitzeko.

Kontuan izan behar da obraren zatirik handiena kokatzen dela ibaiaren eskuinaldean dauden etxolan eta aforalekuaren urbanizazioan; hala ere, beharrezkoa izango da ibaiaren ezkerraldera iristea, tornuaren profilaren inguruko eremua berriz urbanizatzeko, eta hormak egokitzeko. Badago irispidea ibaiaren ezkerraldera, GI-631 errepidetik, eta ibaiaren eskuinaldera ere bai, errepide beretik, zubia zeharkatuz Barreiatuak kalerantz.

2. OBREN DESKRIBAPENA

Hauek dira egin beharreko obrak:

- Etxola handitzea.
- Etxolaren barnealdea eta kanpoaldea berritzea.
- Ibaiaren eskuinaldeko urbanizazioa berritzea.
- Etxola edateko urez hornitzea.
- Ibaiaren ezkerraldea egokitzea.

Etxolak uraren kalitatea neurtzeko dituen ekipamenduak, gaur egun, aforalekuko hobietarako sarbideen gainean kokatuta daude, eta horrek eragotzi egiten du ekipamenduetara segurtasunez iristea; beraz, etxola handitu egingo da atzeko atariperantz, ekipamendu horiek birkokatu ahal izateko. Uraren kalitatea neurtzeko ekipamendu guztiak eremu handituan instalatuko dira, eta edateko urez hornituko dira. Gainera, ura ponpara sartzeko kanalizazio berri bat egingo da, eta hustubide berri bat ere bai.

Aforalekua edateko urez hornitzeko hargune berria Aginaga auzoan dagoen sarearen bitartez egingo da, polietilenozko hodi bat erabiliz, 63 mm-koa: sareko hargune batetik abiatu, udal bideari jarraitu, aforalekurako sarbidean sartu, eta etxolaraino iritsiko da, atzealdetik.

Egungo teilazko estalkia kendu, eta haren ordez, zeramikazko teila kurbatuak jarriko dira zementuzko morteroz egindako erregularizazio geruza baten gainean.

Tornua izango denaren kableak aforalekutik ibaiaren ezkerraldeko euskarriraino ateratzeko, proposatu da atearen goiko aldea egokitzea, gaur egun dagoen markoaren kontra jotzen baitute. Gainera, etxolaren sarrerako atearen ordez beste bat jarriko da, lehendik dagoenaren neurri berekoa, eta beste leiho bat instalatuko da ibaiaren eskuinaldeko pareta handituan eta sareto bat, etxolaren barruko aireztapena errazteko.

Erremate gisa, zoladura irristagaitz bat jarriko da etxola osoan; saneatu eta margotu egingo da, barrutik zein kanpotik; eta azulejuak jarriko dira etxolaren barruan, kalitateko instalazioen aurrealdean.

Ibaiaren eskuinaldean dauden barandak hondatuta daude; beraz, haiek kendu, eta berriak jarriko dira, zokalo bat ere edukiko dutenak lan eremuaren luzera osoan, eta ate bikoitz berriak ezarriko dira ibairako irispideetan. Eremu horietan, orain ibaira jaisteko dauden pateak kendu egingo dira; ibilguko hormari itsatsita, hormigoizko ostikoak egingo dira; eta pate berriak jarriko dira.

PRFVko tramex bat instalatuko da aforalekuko bypasseko kutxatilaren barruan, tarteko altuera batean.

Ibaiaren ezkerraldean, pate berriak jarriko dira hormigoizko ostiko baten gainean, eta hormigoizko plataforma bat sortuko da lehendik dagoen profilaren inguruan, erreskateko Davit besorako oinarri bat jartzeko.

Aldi berean, eskailera-maila saretadun batzuk sortuko dira, hormigoizko eta zurezkoak, GI-631 errepidetik profilera iristeko, lur gaineko egungo kotaren azpitik, tornuaren instalazioak mantentzeko.

Inposta bat egikarituko da ibilguko hormaren gainean, ibaiaren alde horretan, eta baranda bat jarriko da, zokaloduna, eta sartzeko ate bikoitz bat izango duena pateen eremuan; dena definituta geratuko da planoetan.

Egitura berri guztiak lehendik dagoen egiturari lotuko zaizkio, hurrengo prozesuaren bidez: lehenik, eremua pikatu eta saneatuko da, eta, ondoren, Sikadur-32 Fix geruza bat edo antzekoa aplikatuko da, lotura-kontaktu egokia sortzeko. Ondoren, ainguraketa batzuk egingo dira 16 mm-ko hagaxka metalikoekin, hormak lotzeko, 20 cm-tik behin erretxinak ezarrita, eta hormigoi berrian txertatuta geratuko dira.

Azkenik, ibaiaren ibilguko hormak garbitu eta lehengoratuko dira. Obra horiek egin ahal izateko, aurreikus daiteke ur-hesi bat egin behar izatea lur-mugimenduetarako makineriarekin.

3. SARBIDEA

Aforalekurako sarbidea GI-631 errepidetik eta Barreiatuak kaletik egingo da.

4. LANAK EGITEKO EPEA ETA BERMEAREN EPEA

Obra guztiak egiteko aurreikusitako epea LAU (4) HILABETEKOA izango da.

Komenigarritzat jotzen da berme epea URTEBETEKOA (1) izatea.

5. PROIEKTUAREN AURKIBIDEA

Proiektu honek dokumentu hauek ditu:

- 1. dokumentua: MEMORIA

    1. Aurrekariak, proiektuaren objektua eta hartutako irtenbidearen deskribapena

    2. Obren deskribapena

    3. Sarbidea

    4. Lanak egiteko epea eta bermearen epea

    5. Proiektuaren aurkibidea

    6. Aurrekontua

    1. ERANSKINA. Segurtasuna eta Osasuna

    2. ERANSKINA. Hondakinen kudeaketa

    3. ERANSKINA. Prezioen justifikazioa

    4. ERANSKINA. Ingurumen eraginari buruzko azterlana

- 2. dokumentua: PLANOAK

    1. Kokapen planoa.

    2. Egungo egoeraren oinplanoa.

    3.1. Aurkezpen planoa.

    3.2. Jarduketen oinplanoa.

4. Etxolaren egungo egoera.

5.1. Etxolako jarduketak.

5.2. Etxolako jarduketak. Profilaren xehetasuna.

5.3. Etxolako jarduketak. Hobi hezearen xehetasuna.

6.1. Xehetasunak.

6.2. Xehetasunak.

- 3. dokumentua: BALDINTZEN AGIRIA

- 4. dokumentua: AURREKONTUA

1.- Neurketak.

2.- Prezioen 1. taula.

3.- Prezioen 2. taula.

4.- Aurrekontua.

6. AURREKONTUA

Zumarragan, Aitzuko aforalekuaren berrikuntza proiektua kontrata bidez egiteko aurrekontua (BEZa barne) EHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA SEI EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMOKOA da (133.566,13 €).

Donostia, 2021eko urtarrila

Sin.: Yune García Ancín
Ingeniari Zibila

Sin: Felipe Álvarez Rodríguez
Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria